

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- -

KONTROL MOZIOA TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAREN LEHIAKETA BAT BERTAN BEHERA UTZI DELA ETA

Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, txirrindularitzako jardunaldi bat bertan behera utzi dela eta, osoko bilkuran aztertzeko. Mozioa urriaren 14an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren bitartez jakin dugu azaroaren 24an egitekoa zen pistako txirrindularitzako lehiaketa, modalitate horren urteko egutegian sartua, ezin izango dela Donostian egin, Antonio Elorza belodromoa erreserbatua dagoelako azaroaren 21, 22, 23 eta 24an Donostiako maratoiarekin lotutako merkataritza ekitaldi pribatu bat egiteko. Federazioak 2003tik antolatzen ditu, instalazio horretan, pistako txirrindularitzan prestatzeko jardunaldiak, oinarrizko eta emakumezko kategorietan.

Hala ere, duela lau urtetik hona, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak merkataritza ekitaldi pribatu bat lehenesten du, kirol jardueraren aurretik. Horren ondorioz, Federazioak bertan behera utzi behar izaten du lehiaketa jardunaldia, edo Tafallara joan, Donostiakoarekin batera hori baita Euskal Herriko belodromo estali bakarra. Horrek esan nahi du Nafarroaraino joan behar dutela kirolariek (gizon-emakumeak, kadeteak eta juniorrak) eta teknikariek, eta haraino eraman behar direla materiala eta bestelako elementuak, horrek kirol eta ekonomia aldetik dakartzan ondorioekin: kirol ahalmena galtzea eta kostu ekonomikoa handitzea.

Jakina, federazioko eta klubetako arduradunek badakite Donostiako belodromoa publikoa dela eta, hala den aldetik, beste kirol proba batzuk ere egin behar direla hor, hala nola atletismokoak. Ulertzen dute, gainera, instalazioa egokia dela Udalak eta beste erakunde publiko batzuek interes publikokoak diren kirolaz besteko ekitaldi batzuk antolatzeko, esate baterako Zinemaldia. Baina ez dute ulertzen Udal honek merkataritza jarduera pribatu bat lehenestea, kirola prestakuntza kategorietan sustatzearen aurretik, ikusita, gainera, badirela beste aukera batzuk. Txirrindularitza federazioak berak ere proposatu zituen beste aukera batzuk, Illunbe esaterako, baina erantzuna ezezkoa izan zen, eta, okerragoa dena, ez dirudi asmorik dagoenik beste toki bat bilatu eta arazoa horrela konpontzeko.

Ez dezagun ahaztu Antonio Elorza belodromoa pistako txirrindularitzako eta atletismoko lehiaketak izateko bideratu, diseinatu eta eraikitako udal instalazio bat dela. Gainera, ez zaio bakarrik kirolari kalte egiten, baizik eta, askotan, txirrindularitzako pista eta *peloussa* ere hondatu egiten dira, bisitari ugari izaten direlako eta, batez ere, ibilgailuak sartzen direlako, marken erakustegietarako materiala ekartzeko.

Hil honetako batzordean, horri buruzko interpelazioa egin diogu Kiroletako zinegotzi ordezkariari, eta hark erabaki hori justifikatzeko esan du ekitaldi hori beharrezkoa dela maratokia babesteko eta nahiko luketela beste batzuek instalazio bat haiek adina egunean eduki.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus

Erantzun hori ikusita, gogorazi behar dugu pistako txirrindularitzak garrantzi eta tradizio handia duela gure hirian eta Kiroletako Udal Patronatuak lehenetsi egin behar duela gure gazteek instalazio publikoetan kirola egitea, merkataritza marka jakin batzuen interes pribatuen gainetik.

Hori horrela, hauxe da nire **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala zer beste tokitan antola daitezkeen merkataritza ekitaldi pribatuak, baldin eta horretarako belodromoa eskatu badute eta egun horietan kirol lehiaketaren bat bada.
- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala Illunbe presta ote daitezkeen azoka eta merkataritza ekitaldiak antolatzeko.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Reyes Carrere Zabala
EH BILDU udal taldeko zinegotzia